

# **YANDONIS - SAN JUAN - ERMITIA (MORGA)**

JOSÉ ETXEGARAI

\* Departamento de Etnografía  
Instituto Labayru - Bilbao.

Baseliza hau San Juan Bateatzaillearen zaindaritzapean egon da betirik. Altara nagusiko erretaulan San Juanen irudia bakarrik ezagutu da; ezkerreko altara-buruan ostera, San Pedroren irudia egoan, eta eskoian, Santa Katalinarena.

## JEOGRAFIARI BURUZKO ZEAZTASUNAK

San Juanen baseliza (ermitea) Morgako lurralde barruan daukagu, ego-sartaldeko ertzean, hain zuzen. Ikuspegi hau kontuan arturik, Fika, Fruiz eta Morgako lurraldeek alkarri ikutzen deuten inguruan dago jasorik baseliza (ermita) hau. Berba baten esanda, Fika-Morga-Fruiz eta Ganbe auzuneko muga-mugan dago (2).

San Juan baselizaren inguruari «Yandonis..., Yandunis..., Jjanduliz..., Jjanduniz..., Jjandoniz...» deitzen deutse.

Filolojia sailleko jakitunek egiztatu beharko leukie ia «Jjandoniz...» izen horren jatorria «Joan Donea» dan ala ez dan; nik, baietz uste dot.

Leenagoko baselizaren jagolea ta arduraduna, 50 m. barru dagoen baserrian bizi izan zan; baserri hori «Yandoniz...» etab. izenaz ezagutzen da Morga, Fruiz eta Fika errietan; baselizari ostera, «San Juaneko ermittie» deitzen deutse.

«Yandoniz, nai ta Ganbe auzune barruan egon, «Miika» (Meaka) auzokide izan da beti. Gehiago ondiño. Ganbeko auzunean Sto. Tomasen baselizatxo (ermitatxo) bat dago; il-kanpak joten deutsez auzunekoei, baten bat ilten danean, baina inoiz ez ei da kanpaerik jo «Yandonizekoegaitik».

San Juaneko baseliza (ermitea) Meakaurreko San Martin parrokiaren ardurapean egon da betirik; horregaitik, meza emoten izan dan arte (1970 gnera. arte?), Morgako abaderen batek emoten izan dau.

---

(1) Ahoz arturiko itz batzuk idazterakotan Jose M. Etxebarriaren azalpenei jarraitzen deutset. Ikus. ETNIKER 2. zenbakia, 20gn. orrian: «Notas para la transcripción de textos vascos en la encuesta Etniker».

(2) Ganbe auzunea eleizaz Morga da, baina erriz Udal eta Juzgadu arazoetarako, Mungikoa.




Yandonizko San Juan emitearen ikuspegia. 10/10/80.



«San Juan» Yandoniz - Morga. 10/10/80.

Gaurregun baseliza (ermitea) dagoen ingurua landa dago eta barrutizat «Yandoniz... Jjanduniz»ekoak... erabiltzen izan dabe. Jakina, San Juan baselizaren (ermitearen) lurmena. «Jjanduniz» baserrikoek aspalditik eureganduta dauke, eta jaubetasuna legeztatuta. Nire eritzian, jaubetasunaren hipotesisa hauxe izango litzateke: Desamortizaziño aldian -XIX. gizaldikoe-tan- Jjandonizekoek eureganduko ebela. Baina horretaz azken berbea emoteko, hipotesis hau egiztatu egin beharko genduke. Dana dala, San Juan baselizaren iparraldean, (gurpidea ertza dauela) hogeit bat gizelaneko basoa dago eta errikoa da (Morgako Udaletxearena); gaurregun pinu landarekin dauke, baina orain dala 30 urte aresti edo berezia izan ei zan. Sartaldeko aldetik bere, aretxak oraintsurarte egon ei dira. Sortaldeko aldean ostera, landa edo solo ezagutu dira; landa horrein erdi ingurutik Legarr(e)tako errotako kaltzea igaroten da. Egoaldetik, mahats-parrea orma ondoan, sasoi baten erle-kaixak (6-12 inguru), gabon madariak, etab... egon ziran; gaurregun mahatsa han dago eta baita millekot landara batzuk be.

Gure egunotan San Juanera kaminoz eldu leiteke; horretarako «Kaltzo» baserri inguruan, -Fikatik Astorekara (Larrabetzu) doan kamiñoa alde batera itxirik- ezkererantz bide ziortxu bat artu behar da eta «Kaltzakorta:




1. San Juan inguruko kaminoak

- +
- San Juaneko baseliza
- Baserriak
- Kamino Nagusiak
- Gurbidea
- . . . . Errien Mugak

eta «Mentzebarri» baserriak igaro ondoren, «Mentzekoerrotan» barriro ezkerrentzako kamiñoa artu behar dogu Jjandonizera joateko. «Mentzekoerrotako bide kurtzetik 200 m. inguru egongo dira, eta han bakar-kakarrean «Yandoniz... Jjanduliz... etab....» baserria eta San Juanen basiliza dagoz. Fruitzik bere, San Juanera ia-ia kamiñoz eldu leiteke; Botiola auzuneko azkenengo baserrian (Goroziketzebarri), eskoirantz leenagoko gurpidea artu behar da; 700 bat metro barru San Juan eta «Jjandoniz» dagoz.

Leenagoko gurpideak «Jjandoniz»etik igaroten ziranak, honeexek ziran: bata, Meakaurretik, Kallene, Elesburu, Arkotxe, Bijjorta, Altamire, Menike, Suutzara, Eskola, Abuntze, Zorr(o)tzondo, Jjandoniz, Mentze barrenetik, Gibebe, Lanta, Artea, Kasikimera (Maixuene=Pinuaga), Piketxebarritik Fikaraiño etorren; bestea, Atxispetik, Kaltzo, Kaltzokorta, Mentzebarri, Mentzekoerrotan, Jjandonizetik Legarr(e)tako errota joateko; baita, Botiolakoek be Atxispera egur, ota eta ira billa joateko; gaurregun, Atxispetik Jjandonizera iño arrizkoa dogu gurpidea. Baina Meakaurretik Fikaraiño datorrena arrizkoa eta galipotezkoa da une batzutan; Zorr(o)tzondotik Fikaraiño leenagoko itxuran dago; bakar-bakarrik iñor ez dabillenez, sasiz behingoan galduko da. Irudiarekin argituta geratuko da.



II. Lenauko gurbideak

«Jjandoniz, Jjanduliz...» inguruan iturri berezirik ez da ezagutzen, ezta iturriko ur osasunkorrik be.

Illobien gomutarik eta seiñalerik ez da agertu; bakar-bakarrik, Albina Ibarra andreak, Jjandonizen bizi izandakoak eta bertako alabeak, esan deuskuna idatziko deusuegu «Antxiña San Juaneko ermittan enterrauten ei zan; ikusten da an zelan dagon ermitten beia; arri-losak dauz unekada baten, baia ermitten beia geiena, ladrilluekaz dau eta ikusten da a zelan mobidute dauen; an entarreuko zittuezan lenau...» Albinak berak esan eustanetik baleiteke estela antzerako bat izatea, ermitearen kanpoko ipar ertzean egoan arri landu bat. Gaurregun ez da agertzen arri landu hori. Baita beste autormen hau be jaso dogu: Baselizaren iparraldean, 8 x 19,6 metroko lur lau ertzekoa ei


egoan; lur une horren ertza, alde batetik, basilizaren orma izan ei zan eta besteetatik metro erdiko aparteko orma berezia (metro erdi betik-lurğañetik-gora ulertu behar da, eta ez zabaleran). Dana dala, gaurregun ez da agertzen ezeren seiñalerik.

San Juaneko Basiliza eta Jjandoniz baserria Mentze Tontorreko sortaldeko magalean dagoz eta Zabaleko basoen barrenean, errekea bitarteko dala. Inguruko baserrien izenak honexek dira: Mentzekoerrota, Mentzebarri, Mentze, Legarr(e)ta, Gorozikeetzebarri, Zabaltzebarri eta Zabale.

San Juanetik artezean kilometro bat barru, San Pedro Mendiko atxartean artzulo bat dago; «Erlapiko» artzuloa deitzen deutse. Iñork ez deust esan sorgiñen siñeskerarik-edo dagoenik «Erlapikoko» artzuloa dala-ta.

### ERMITAGINTZA ZEAZTASUNAK (ARKITEKTURARI BURUZKO XEETASUNAK)


Lehenengo-lehenengoan aurreratu daigun basilizaren ormak eta teillatua bakarrik dagozala leenagoko eta betiko itxuran. Korua, altarak, pulpitoa... eta gaiñerakoak austuta dagoz, apurtuta edo itogiñaz ustelduta. Basilizaren neurriak miresgarriak dira. Hona hemen: 19,6 x 9,8 (sartaldeko aldean) x 7 m. (betik telaitura) ditu. Benetan, hemen honenbesteko basilizarik ez dogu ezagutzen Sumetxako San Migel ermitea izan ezik. Kanpozt 173 m<sup>2</sup> ditu.




IV. San Juan basilizaren sartaldeko aurpegia

0 1m 2m 3m



Baselizak sarrera bi ditu: Sartaldetik eta hegoaldeetik. Sarrera biak tellatupean egozan, nai ta gaurregun egoaldeko eleizpea bakarrik dagoen zutunik. Sartaldeko eleizpea jausi dala, hamar bat urte izango dira. Egoaldetik



San Juan basilizaren sortaldeko aurpegia



San Juan basilizaren hegoaldeko aurpegia



(I)-Kuku Leio  
(Saetera)

San Juan basilizaren iparraldeko aurpegia






iru leio ditu, behetik gorantz 4 m. barru; sortaldean beste leio bat dauka, Sakristia argitzeko hain zuzen. Iparraldetik, kuku-leio bat dauka (Edergintza sailleko jakitunek «Saetera» edo «aspillera» deitzen deutse). Berezian, leioek ez dauke aparteko meriturik: lau ertzekoak dira; leio-goiak, barrenak eta alboak kanporantz okertuta agertzen jakuz. Arlosak edo arri-landuak bakarrik agertzen dira baselizaren ertzetan eta utsuneetan (ate eta leioetan); horrez aparte, ormak arlagaitzezkoak («mampostería» deritxona) dira.

Egoaldeko atea mako (arku) zorrotzekoa da; makoaren (arkuaren) zorrotzetasuna dobelarri bik ornitzen dabe eta, albo bakotxean, salmer-arri baten gainean doaz.

Atzekaldeko atea, sartaldeko atea, aparteko meriturik ez dauka; lau ertzekoa da eta dobelarriekin, erdi-erdian giltzarria dalarik, ornituta dago. Baselizaren ormak kare-aldi batekin estaldurik dagoz; bakarrik altara aurreko mako nagusia agertzen da arri bizian; mako hau obo-erdikoa da eta presbiterio gaineko sapaia asiera emoten deutso; gainetako tellapea agiri-agirian dago. Tellatuko gaillura «Zertxa» pare baten gainean eta atzekaldeko orma gainean doa.



Zertxa

Baselizaren oin-irudian agertzen dan lez, behea arlosazkoa da Sakristian, altara nagusi aurrean, baselizaren barreneko une baten eta hegoaldeko eleizpean: gainetantzekoa, adrilluzkoa da.


Gauregunean ez altara bururik (erretaularik), ez Santuen (San Juan, Sta. Catalina, S. Pedro) irudirik ez dago baselizan. Pulpitua ustelduta lurrera jausita dago; era berean erdi-jausirik dago korua; egurrezkoa da eta aurreko agea apaindurekin agertzen da; baita be, irakurten jako idazki hau:

«ESTA OBRA HIZO EL MAESTRO MARTIN DE GORRAZA (GURRAZA?) AÑO DE 1722».

Korua egin zaneko idazkia izango dala uste dot nik; ezin leiteke izan baseliza egin zanekoa arrazoi bakar bategatitik; mendeak leenagotik daukaguzalako San Juaneko Baselizaren barri eta zehastasunak. Azkenean esango dogun lez, XVIII. mendeko historiagilleak, Iturriza Juan Ramonek, baseliza mende horretakoa balitz lez idatziko eban.

Altara nagusira igoteko baselizaren oiñetik hiru arlosazko mailla dagoz; baleiteke altarea bera adrillu eta buztinezkoa izatea, lantzean arlosaren bat

III. S. Juan baselizaren oin-irudia



- I. Aldare nagusia
- II. Sta. Katalinaren aldarea
- III. S. Pedroren aldarea
- IV. Sakristia
- V. Aldare-aurrea (Prespite.)
- VI. Arlosak
- VII. Errota arria
- VIII. Eleizpea

bitartean dala; karez estaldurik dagoen ezker, ezin dogu ziur ziurrean baieztatu. Altarearen neurriak honexek dira: 1,10 x 1,09 x 2,15 m. Altara buruan egoan erretaula bat, San Juanen irudia eukana.




Iñon ez dot irakurri, baiña neure eritxian erretaula hau baleiteke hamazortzigarren gizaldikoa izatea, behar bada Neoklasiko itxurakoa (?); San Juanen irudia bera baleiteke apurtxo bat lehenagokoa izatea, baina ez asko. (Erretaula eta San Juanen irudia, gaurregun Gambeko eskolan dagoz; domekero mezea Fruizko abadeak emoten dau eskola horretan). Presbiterioaren goi sapaia (*bóveda* deritxona) lau-atalezkoa da; diagonalak (2) alkar zapaltzen dabe erdi-erdian.

Sakristira Presbiteriotik dago sarrera; ate ingurua arlosazkoa da; mailla bat jatxi behar da. Sakristiaren neurriak ara hemen: 4,06 x 1,90 x 3,10. Adrilluzko sapaia dauka; leio bat be badago. Sarreraren aurrez-aur orman dindilizka borobil erdiko iturri bat dago.

Baselizaren teillatua ur bitara dago, eleizpeak oster, batera. Teillatuaren gaillurretik-behera datozen atzetik aurrerako ageak apaindurekin agertzen dira; age bakotxa hiru agiñekin agertzen da.

Kanpantorretxua gorpuzt batekoa, utsune batekoa da. Kanpae bakarra egoan; baiña, gaurregun kanpaerik ez dago; Ganbeko Sto. Tomasen baselizatxoan ei dago.



Presbiterio barreneko zut-zat irudia



San Pedro eta Sta. Katalinaren irudiak Morgako parrokian ete dagozan esan eusteen nire barri-emoilleek. Era berean, eleizako edo meza libururaren barririk iñork ez daki.

Albina Ibarra, andreak, esan eustan, berak ezagutu ebala baselizaren bariuan liburu kaixa bat; baiña orain ez daki nondik nora dan kaixa ha.

Santuen erlikirik, ezta kasulla, alba,... etab. horrelakorik ez dago gaurregunean San Juanen; banku eta jarlekurik be ez dago; ur bedeinkatu-ontzirik be ez da agiri.

Ziñ-oroigarririk (*Exvoto*) ez da ezagutu.

### San Juaneri buruz zeaztasun historikoak

Baseliza hau noizkoa danaren zeaztasunik ez daukagu. Erriaren ustean Morgako San Martin Parrokia baino lehenagokoa ei da. Nire informatzailleak bere, uste berberau agertu deuste. Uste hau orain dala gizaldietatik dator; Iturriza eta Zabala Juan Ramonek batzen dau tradiziño hau bere liburuan eta itzez-itz dakarre bardin Delmas, Etxegarai Karmelok, eta abarrek. Iturrizak hauxe diño...«La de San Juan Bautista, con pila bautismal, con tradición de que fue Parroquia antes de que se fundase la de San Martín de Morga» (3). Nire ustez Delmasek (1864 an) larregi diño: «La segunda ermita es la de San

(3) Historia de Vizcaya, General de todo el Señorío y particular de cada una de las Anteiglesias... por D. Juan Ramón de ITURRIZA y ZABALA. Edición y notas de Angel Rodríguez Herrero. Bilbao. MCMXXXVIII, p. 280.

Juan Bautista; todavía se conserva en ella la pila bautismal, y la tradición viene repitiendo que fue parroquia antes que la de San Martín de Meacaur, que data del siglo X» (4).

Gaurregun ez da bateo pontearririk agiri, ezta nire informatzailleek be ez dabe ezer entzun, ez ikusi.

Ez dakigu, baiña baleiteke Morgako San Martin Parrokia baino lehenagokoa izatea. Egiztatu egin beharko litzateke. Baina Delmaseri zaillago egingo litzakio Morgako San Martin Parrokia X. mendekoa dala egiztatzea. Arkitektura aldetik bere ez datorkigu argitasunik. San Juan baselizeak berak ez dauka estilo berezirik; ego aldeko atea gotiko itxurakoa dala dirudi, eta sartaldekoa Errenazimentutik beherakoa ez da; ez daukagu beste leiorik, ez beste ezaugarririk noizkoa dan adierazten damoskunik. Morgako San Martin Parrokiko egoaldeko sarrerea ziur-ziur hamaseigarren mendekoa da; aurretik beste San Martin elizaren bat izango zan Morgan, baina ez dot uste hamargarren mendekorik. Bizkai guztian bere zenbat parroki izango ziran X. mendean ba?

Dana dala, San Juan baselizaren neurriak ikusita (ermita bat izateko oso haundia da, ikarragarrikoa da) eta atzekaldeko atea, leioak, ugari eta lau ertzekoak ikusirik hamaseigarren mendetik beherakoa izatea, oso zailla izan leiteke. Gaurkoz hemen itxi beharra daukagu arlo hau, noizkoa dan baseliza argitu barik. Beharbada San Juanen egon ziran kaixako liburuak agertuko balira, jakin al izango genduke noizkoa dan.

Beste aldetik, korupeko agean dakarren idazkiak «Esta obra hizo al maestro Martín de Gorraza (Gurraza?) año de 1722», baleiteke koruari dagokiozan urteak adieraztea, baina ez bazeliza guztiarenak. Noizkoa dan baseliza hau jakitea, zailla baino zaillagoa bada, ez da gitxiago noren aginduz edo indarrez egiña izan zan jakitea; oraingoz erantzun barik geratu beharko dabe itaunok: noizkoa, noren aginduz eta zergaitik.

## Barriztatzeak

Informatzailleek, baselizaren barriztatze garrantzizkorik ez dabe eza-gutu.

## Ospea

1950'rarte San Juaneko baselizak ospe aundia euki eban; urte horretatik gorantz industrigintza oso-osoa sartzen asi zan Mungia aldean eta gero eta gehiago otzituten joan zan; eta orain dala amar urte azkenengo mezea esango zan San Juaneko baselizan: Bost urte lehenago (1965'an) baita be izango ziran azkenengo Rogatiba ibillaldiak Meakaurretik San Juanera. Bene-benetan, penagarria bada be, San Juaneko jaia, ospetasuna eta otoiz-erregu toki izatea galdu da.

---

(4) Guía histórico-descriptiva del viaje al Señorío de Vizcaya, Juan DELMAS, p. 459.

## **Ipuñak eta esaundak**

Yandonizko baselizari buruz ez dot batu ipuinik ezta bertso-barririk; nire informatzailleek ez ekien holakoen barririk.

Batek (5) San Juan besperako su-meta inguruan abestuten ziran bertsoak gogarazi eustezan: «Geur dala, bijjer dala Doniene, etzi San Juan Bijjamune, sapoak eta sugoiak erre, artoak eta garijkek gorde, gure soloan sorgiñik ez; badago bere erre beitez».

## **Patronatoa**

San Juaneko baseliza «Jjandoniz, Yandoniz... Jjanduliz...» ekoen ardura-pean ezagutu da beti eta Meakaurreko parrokiaren menpekota izan da. Patronatopean egon danik, ez da ezagutu.

## **ELEIZ-OITURAK, ELEIZKIZUNAK**

### **Santuen irudiak**

Nai ta San Pedroren eta Santa Katalinaren altarak egon baselizan San Juan Bateatzaillearen laguntasunaren billa erreguka joaten zan jentea. Oilloak osatzeko eskatzen jakon San Juaneri; eroaten eutsezan orio eta kandelak altara aurrean eta kriselluan erre daitezkan. Baita be, domeketan eta jai egun askotan joaten ziran, andrazkoak batez bere, errosarioak erresatzen oilloentzako Osasuna eskatzen edo oillo gatxa uxatu zedin oillotokitik.

Beste erritu bat be batu dogu. Oilloa ezarten zanean, «Aitearen, Semearen... eta Espiritu Santuaren izenean» egiñaz arrautza bat eskuan dala, «San Juanen izenean oillosko bat, San Juanen izenean oillenda bat...» eta honela amairu, hamabost edo hamazazpi arrautza oillo lokapean ezarri arte jarraitzen zan. Azkenengo arrautzea ipiñita, aitagure bat edo iru agurmari errezatzen ziran. Erritu hau Morga, Fika, Fruiz, Gamiz eta Mungialdean oso zabaldua egon da, orain dala ogei-ogeitamar urterarte (1950'arte edo gehiago).

Hauxe be jakingarria da. Sopelako Elisa Sagondoren alabeak honela, idatziz, azaldu eustan erritu hau:...«Arrautza kopurua nonez izaten zan beti; hamairu, hamabost, edo hamazazpi arrautza, oilloaren edertasuna gora behera, binan-binan artu ta jartzen zituan amak abian, honela esanez:

«Hau oiloskotxu da, hau oilandi  
San Dolizen izenian...»

Horrela pare guztiak abian imini ta geratzen zan bakarra iminterakoan barriz:

«Au oilloskotxu nai oilandi  
Jainkun borondati...»

---

(5) Timotea Etxegarai Elorriagak abestu eustan.

Nire ustean, oillo ezartze hori, emonkorra izan zedin, txitatsua izan zedin eskatzeko zan (*Rito de fecundidad, fertilidad* deritxona?) Oillo-ezartze hori txitatsua izan zedin eskatzen zan, ba behin oillandia, behin oillaskoa eskatzen zalako. Etzan eskatzen oillaskotsua edo oillandatsua izan zedin; behin banan eskatzen zan; horregaitik diñot «rito de fecundidad» lakoxea izango zala.

Soledad Llona andereak, esan eustan erri-jakintzak ondo esagutzen dituela zelako arrautzak ezarri behar direan oillaskotsua izan daiten: Agorrillean ezarri behar dira, eta arrautza luzenkea oillaskoa izango dalakoaren siñeskeria dago; osterá, arrautza biribilla, oillandea.

### **Otoitz bereziak**

Ez da ezagutzen aparteko otoitzik, ez errezurik, baselizaren ondotik igaro behar danerako.

### **Eskeintzak**

Orio eta kandelak eskeintzen ziran, eta norbaitzuek mezatarako limosnea be eskeintzen eben.

### **Ospakizunak eta oiturak**

San Juan Bateatzaillearen eguna bagillaren 24 an. ospatzen zan. Egun horretan meza esaten zan eta kanpoko sermolaria egoten zan. Meakaurreko parrokoa zan meza emoillea. Meza ostean Jjandoniz baserrian gosaltzen eban; gehienetan, txokolatea. Baskaria be jjandonizekoak emoten eutsen abadeeri. Erriko agintaririk etzan etorten, agintari legez, San Juanera. Iñoiz etortzen zala «aguazille» esan deuste nire informatzailleek, baiña erromeritik kanpo ez eban eukiten aparteko betebeharririk: Erromeriko eskandaluak zigortu..., sisa txosnakoengandik jaso... etab... Meza aurretik ez egoan prozesiñorik; mesa ostean, sartaldeko ate aurrean, oitura ei zan, aurrekua tanboliñaren doñuaz. San Juaneko erromeria soiñularien kontura izan da, azkenengo berrogei-berrogetamar urtean.

San Pedro egunez be mezea egoten zan San Juaneko baselizan; baina, egun horretan mezea bakarrik egoten zan.

### **Errogatibea, mezak, etabar.**

Asentzio aurreko errogatibetan, hirugarren egunean, hau Asentzio jai bezperan Meakaurretik etortzen zan San Juanerarte prozesiñoan eta San Juanen mezea esaten zan.

Labur-laburrean esateko, urtean hiru egunetan mezea egoten zan San Juanen: 1) Bagillaren 24.an.- 2) San Pedro egunean.- 3) Asentzio bezperan.

## San Juan lorak

San Juan egunean lora txorta bat eroaten zan mezara bedeinkatua izan zedin. Lora horreek etxean gordetan ziran urte guztian; eta oiñaztarri-trumoi egunetan, apurka-apurka erre egiten ziran plater baten; erre aurretik ur bedeinkatua botaten jaken eta baita ormetara be ur bedeinkatua botaten zan esanez: «Santa Barbara, Santa Kruz, jaune, miseri cordibus...» (Soledad Llona).

San Juan egunean erromeria soiñularien kontura eta txistularien kontura izaten zan. Udaletxeko agintaririk etzan etorten agintari legez. Ardaurik emoten zanik, auzokoen kontura, ez da ezagutu.

## Jagoleak

Kofradirik ez da ezagutu. Jagolea eta arduraduna Jjandonizeko nagusia izan da; baseliza garbitu, kandelak gabetan amatau, etab... Jjandonizeko etxekoandarearen ardurea zan. Hau belaunaldi batetik bestera etorritako oitura bat zan. San Juan egunean batzen ziran limosnetatik meakaurreko parrokoak zertxobait emoten eutsen Jjandonizeko etxekoandeari. Hau be, oitura legez, ez egoan, zenbat emon, izentatuta.

Meakaurreko abadeen ardurapean egoan San Juan eguneko meza, San Pedro egunekoa..., eta Asentzio bezperakoa, baina ez egoan aparteko abaderik izentauta San Juanerako.

## Bibliografia

Juan Ramón ITURRIZA ZABALA, *Historia de Vizcaya General de todo el Señorío y particular de cada una de las anteiglesias, Villas, Ciudad, Consejos y valle*

## Ospakizunak eta oiturak

San Juan Bateatzaillearen eguna bagillaren 24 an. ospatzen zan. Egun horretan meza esaten zan eta kanpoko sermolaria egoten zan. Meakaurreko parrokoa zan meza emoillea. Meza ostean Jjandoniz baserrian gosaltzen eban; gehienetan, txokolatea. Baskaria be jjandonizekoak emoten eutsen abadeeri. Erriko agintaririk etzan etorten, agintari legez, San Juanera. Iñoiz etortzen zala «aguazille» esan deuste nire informatzailleek, baiña erromeritik kanpo ez eban eukiten aparteko betebeharrrik: Erromeriko eskandaluak zigortu..., sisa txosnakoengandik jaso... etab... Meza aurretik ez egoan prozesiñorik; mesa ostean, sartaldeko ate aurrean, oitura ei zan, aurrekua tanboliñaren doñuaz. San Juaneko erromeria soiñularien kontura izan da, azkenengo berrogei-berrogetamar urtean.

San Pedro egunez be mezea egoten zan San Juaneko baselizan; baina, egun horretan mezea bakarrik egoten zan.



## Errogatibea, mezak, etabar.

Asentzio aurreko errogatibetan, hirugarren egunean, hau Asentzio jai bezperan Meakaurretik etortzen zan San Juanerarte prozesiñoan eta San Juanen mezea esaten zan.

Labur-laburrean esateko, urtean hiru egunetan mezea egoten zan San Juanen: 1) Bagillaren 24.an.- 2) San Pedro egunean.- 3) Asentzio bezperan.

## San Juan lorak

San Juan egunean lora txorta bat eroaten zan mezara bedeinkatua izan zedin. Lora horreek etxean gordetan ziran urte guztian; eta oiñaztarri-trumoi egunetan, apurka-apurka erre egiten ziran plater baten; erre aurretik ur bedeinkatua botaten jaken eta baita ormetara be ur bedeinkatua botaten zan esanez: «Santa Barbara, Santa Kruz, jaune, miseri cordibus...» (Soledad Llona).

San Juan egunean erromeria soiñularien kontura eta txistularien kontura izaten zan. Udaletxeko agintaririk etzan etorten agintari legez. Ardaurik emoten zanik, auzokoen kontura, ez da ezagutu.

## Jagoleak

Kofradirik ez da ezagutu. Jagolea eta arduraduna Jjandonizeko nagusia izan da; baseliza garbitu, kandelak gabetan amatau, etab... Jjandonizeko etxeoandreaken ardurea zan. Hau belaunaldi batetik bestera etorritako oitura bat zan. San Juan egunean batzen ziran limosnetatik meakaurreko parrokoak zertxobait emoten eutson Jjandonizeko etxeoandreaki. Hau be, oitura legez, ez egoan, zenbat emon, izentatuta.

Meakaurreko abadeen ardurapean egoan San Juan eguneko meza, San Pedro egunekoa..., eta Asentzio bezperakoa, baina ez egoan aparteko abaderik izentautu San Juanerako.

## Bibliografia

Juan Ramón ITURRIZA ZABALA, *Historia de Vizcaya General de todo el Señorío y titular de cada una de las anteiglesias, Villas, Ciudad, Consejos y Valles desde su fundación hasta el año 1787* por ampliada hasta nuestros días por Manuel AZCARRAGA y RÉGIL liburuan hauxe diño: «La segunda ermita está dedicada a San Juan Bautista que fue también parroquia anterior a la de San Martín» (pág. 410).

ITURRIZA ZABALA, Juan Ramonek berberak, baina «*Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*» ; edición y notas por Angel Rodríguez y Herrero liburuan, beste hau diño: «...La de San Juan Bautista, con pila bautismal, con tradición de que fue Parroquia antes de que se fundase la de San Martín de Morga...» (pág. 280).

Pascual MADDOZ jaunak, bere «*Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*». Madrid, 1848. liburuan, San Juaneko baselizaren barririk ez dakar; beste 5 baselizenak badakarz, baina San Juanena ez.

Juan E. DELMASEK bere *Guía histórico-descriptiva del Viajero del Señorío de Vizcaya*» liburua beste hau diño: «La segunda ermita es la de San Juan Bautista; todavía se conserva en ella la pila bautismal y la tradición viene repitiendo que fue parroquia antes que la de San Martín de Meacaur, que data del siglo x...» (pág. 459).

Carmelo ETXEGARAY jaunak antzera diño Bizkaiatzaz daukon *Geografía General del País Vasco-Navarro* liburuak: «...Hay además de esta Iglesia seis ermitas tan curiosas y antiguas que merecen un examen detenido...».

«La segunda ermita es la de San Juan Bautista; todavía se conserva en ella la pila bautismal, y la tradición viene repitiendo que fue Parroquia antes que la de *San Juan de Meacaur* (sic), que según esa misma tradición, data del siglo X» (pág. 832).

### **Beharrirenak. Egoera**

Lehengotatik esanda daukagu. Baseliza hau, laister behera jausteko arriskuan dago, Garregun noiz jausiko dago; irudiak Meakaurreko eleizan ei dagoz; kanpaia, Santo Tomaseko baselizatxoan, eta honela dana sakabanatuta; beste alde batetik, mezarik, ez erromeririk ez da egiten aspaldiko amar urteotan, eta honela, ia galdutzat emon leike Morgako San Juanen baselizatxoa. Penagarria, baina honelantxe da.

### **RESUMEN**

La ermita de San Juan Bautista de Morga, se halla situada en el SW. del municipio; justamente en el límite territorial de las Parroquias de San Martín de Morga, San Martín de Fika y El Salvador de Fruiz. Por Fika tiene acceso por camino vecinal y por Fruiz y Morga, por camino carretil.

Como datos arquitectónicos diremos que no tiene un estilo definido. Destacaríamos de su arquitectura las enormes dimensiones, -para ser una ermita-; de los elementos arquitectónicos destacaremos su planta poligonal, la aspillera o saetera en su muro Norte, el arco apuntado de la puerta Sur, el arco toral del presbiterio, bóveda cuatripartita del presbiterio, el tejado a dos aguas sostenidos por doble cercha, la decoración dentaria de la viga delantera del coro..., etc. Curiosa también la inscripción que pudimos leer en esa viga-faldón del coro: «Esta obra hizo el maestro Martín de Gurraza (Gorraza?) año de 1722...».

Mi hipótesis es que esta inscripción pudiera referirse solamente al Coro, y no a la ermita entera. Por otra parte, los ventanales (3) de la fachada Sur nos

recordarían construcciones del siglo XV-XVI (Renacimiento, post-renacimiento), del que tantos ejemplares podemos ver en este valle, empezando por la misma parroquia de San Martín de Morgia. La ermita está en terreno, propiedad privada, del caserío Jjandoniz, pero contiguo existe un monte comunal de Morgia, de unas 50 peonadas. Otra hipótesis aventuramos a este respecto: Que los pertenecidos a la casa Jjandoniz y a la ermita San Juan fueron tierras desamortizadas en el siglo XIX, y la única parte no desamortizada, es lo que hoy constituye el monte comunal.

En la ermita había tres altares. El altar mayor, con retablo neoclásico e imagen difícilmente clasificable; de todas formas, la imagen de San Juan (en la actualidad en la escuela de barriada de Gambe), es relativamente moderna, de hechura moderna, post-renacentista (?). En el lado del Evangelio y fuera del Presbiterio se hallaba el altar de San Pedro, y en el de la epístola, el altar de Santa Catalina. Ambas imágenes se hallan en paradero desconocido. (Tal vez en la Parroquia de Morgia).

Entre las propiedades que se le atribuyen a San Juan está la curación de las enfermedades y pestes de las gallinas. Las ofrendas usuales eran aceite y velas. El día de San Juan se bendecían ramilletes de flores que se conservaban durante todo el año, quemándose en los días de tormenta tras rociarse con agua bendita.

Ha tenido un culto muy próspero hasta los años 1950-1960. En la actualidad no se celebra ya ningún culto; dejó de celebrarse misa el día de San Juan de 1969-1970 (?). Está en lamentables condiciones de conservación. No tardando mucho, se derrumbará por completo, y sólo unas ruinas quedarán como testigo de lo que en otro tiempo fue la ermita de San Juan.

### **Informatzailleak:**

- Albina Ibarra (57 urte) «Yandoniz» baserrian jaioa.
- Soledad Llona (59 urte) Zabaltzebarri baserrian jaioa.
- Eusebio Arostegi (65 urte) Bitorrena baserrian jaioa.
- Timotea Echegaray (58 urte) Frantxone baserrian jaioa.
- Baita be erabilli dodaz enkuesta bi, Amaya Perea Otazuak eta M. Begoña Bilbao Arrienek (Derion majisterio ikasten diarduenak) erantzundakoak.

1980ongo. Abendua